

Gure bezeroekin harreman ona izatea funtsezkoa dela uste dugu. Hori lortzeko, bezeroei gurekin modu errazean komunikatzeko aukera ematen dien aplikazio bat sortu dugu. Telefono bidez deitu ahal izango digute ere, edo gure sare sozialen bidez gurekin harremanetan jarri, edozein unetan zalantzarik, galderarik badute edo arazoren baten berri eman behar badigute. Horrek komunikazio irekia mantentzen lagunduko digu eta edozein gai modu azkar eta eraginkorrean konpontzen.

Bezero berriak erakartzeko, sare sozialetan publizitatea egingo dugu. Gure aplikazioa erabiltzeko erraza eta azkarra izatea nahi dugu, jendea gure zerbitzua probatzean eroso senti dadin.

Gure bezeroak mantentzeko, arreta azkarra eta pertsonalizatua eskainiko dugu. Beti errespetuz erantzungo dugu eta ahal dugun modurik onenean laguntzen saiatuko gara. Gainera, bezeroen iritziak entzungo ditugu gure zerbitzua hobetzeko.

Gainera, bezeroak gure jardueretan parte hartzera animatuko ditugu, horrek konfiantza eta harreman estuagoa sortzen lagunduko baitu. Modu honetan, bezeroak pozik egongo dira, berriro erabiliko dute gure aplikazioa eta pixkanaka gure proiektua hazten joango da.